

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHU eta VITAL FUNDAZIOAREN ARTEKO
IKERKETA PROIEKTUETARAKO DEIALDIA**

(2021)



ATARIKOA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean, UPV/EHUk), bere estatutuek dioten legez, ikertzeko gaitasuna onartu eta bermatuko du, zientzialariek onetsitako lege eta kode edo arau deontologikoetan jasotako mugen barruan. Euskara sustatzeko konpromisoa hartzen du, ikerkuntzan eta zientziaren zabalkundean, eta berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko ikerkuntza bultzatzekoa, hobeto ezagutzeko eta ulertzeko mundu osoan giza garapena eta garapen jasangarria mehatxatzen dituzten arazoak. Arlo honetan, ikerkuntzari esker, garapen jasangarrirako 2030 agenda (Nazio Batuak, 2015) gauzatzen lagunduko da kontziente eta irmoki.

UPV/EHU eta Vital Fundazioaren arteko Ikerketa Proiektuen 2021. urteko deialdiaren helburua da Arabako Lurralde Historikoari eta garapen jasangarriaren helburuei (GJH) lotutako oinarritzko ikerketa aplikatua garatzen laguntzea. Xede horretarako, guztira, 46.000 euro erabiliko dira, Vital Fundazioaren eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmenaren arabera, Arabako Campusean jarduera programak garatzeko.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean, IGBB) oniritziaren ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean, IAEk) UPV/EHU eta Vital Fundazioa proiektuen deialdia (2021) argitaratzea ebatzi du.

1. oinarria.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da jakintza sortzea eta gizartearen eskura jartzea, Arabako Lurralde Historikoari lotutako ikerketa proiektuen bidez, jakintzaren bost alorretako edozeinetan: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak eta Arteak eta Giza Zientziak.

2. oinarria.- DEIALDI HONETAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO EZINTASUNAK

Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- i. Epai irmoz kondenatuta daudenak diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- ii. Diru laguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru gutzia itzuli ez dutenak.
- iii. Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenak, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

Ezin izango dira onuradun izan ikertaldeak baldin eta bere kideetako edozein aurreko egoeraren batean balego.

3. oinarria.- IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Ikertaldeek 3.1 atalean jasotzen diren UPV/EHUrekiko lotura motari dagozkion baldintzetako bat betetzen duten osakideak izango dituzte eta, ikertaldeak osatzeko 3. atalean zehazten dituen baldintzak beteko:2.

3.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:

- a. UPV/EHUekin lotutako lan kontratudun edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua arabera kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUen Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea eta irakasle atxikiak edo lehenago izandako bitarteko lan kontratudunak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero.
- b. Pertsonal ez iraunkorra; honi dagokionez, UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak 2022ko abenduaren 31ra artekoa izan behar du.

Horren harira, besteak beste, honako hauek izango dira langile ez iraunkorrak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia eta teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duten ikertzaileak. Kasu hauetan, kontratuaren iraupena 2022ko abenduaren 31a baino lehen amaituko balitz, kontratuaren arduradunak data horretarako lan lotura bermatzeko konpromisoa agertu ahal izango du.

Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileei dagokienez, doktorego tesiaren zuzentzaileak proiektuaren ardura daraman taldeko kide beharko du izan.

- c. Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, UPV/EHUko ikerkuntzarako lankide akademikoak.

3.2. Ikertaldeak osatzeko baldintzak:

- a. Ikertaldeak, gutxien dela, 3.1.a. atalean aipatutako kolektiboetako bi doktore izango ditu osakide.
- b. Eskaera koordinatzen duen ikertzaile nagusia (aurrerantzean, IN) 3.1.a. atalean aipatutako kolektibo batekoa izango da, Arabako campusari atxikitakoa. Doktorea izango da eta arduraldi osoa izango du.
- c. Proiektuetan ikertzaile nagusi kide bat egon ahal izango da, lehenengoa egon ez eta ikertzaile nagusi arituko dena, beti ere 3.1.a oinarrian eskaturiko baldintzak beteta.
- d. Gutxien dela, ikertzaile nagusietako batek enplegu lotura izan beharko du UPV/EHUrekin eta berau izango da UPV/EHUko izatea betebeharrak moduan ezartzen duten funtzioetarako arduraduna (sinatu UPV/EHUren izenean, unitate organikoaren arduradunak eta abar).
- e. Gutxien dela, eskaera egin duen ikertaldeko kideen % 50ek Arabako Campusari atxikita egon beharko du.

3.3. Aldi berean eskaera batean baino gehiagotan parte hartzea: Ikertaldeko ezein kidek (ez eta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du parte hartu deialdi honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartzen badu, proiektu horietatik kanpo geldituko da.

4. oinarria.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

4.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatzeko laguntzak.
- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzu zentralaren bidez erosi ahal izango dira, ez bestela.

Azpiegitura zientifikoa proiektuaren amaiera data baino sei hilabete lehenagora arte eros daiteke. Epe hori igarota, epigrafe honetara bideratutako finantzaketa erretiratuko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzak.

- c. Material suntsigarria, proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada.

Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, bai eta ikerketako zerbitzu nagusiak (SGiker) erabiltzeak sortutakoak ere.

- d. Bidaiak eta dietak, proiektuari loturik egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifiko garrantzizkoetan azaltzeko egin beharreko joan-etorriek eragindakoak.

Atal honetan sartutako zenbatekoek, bai eta, gehien dela, lau aste arteko egonaldi laburrenak ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskarian. Proiektua garatu ahal izateko, kanpoko lana (inkestak, elkarrizketak eta beste) egin behar denean, joan-etorri hauen kostua bidaiak eta dieten atalean jarri beharko dira. Atal honetan sartuko dira ere kongresuetan parte hartzeko bidaiak sortutako gastuak eta horietan izena emateko kuoten ordainketa.

- e. Beste gastu batzuk, aurreko atalean zehaztutako gastuetan sartzen ez direnak, baina behar bezala egiaztatuta daudenak. Barne izango dira konponketa eta mantentze lanak, UPV/EHUko zerbitzu zentralak egindako mantentze kontratuak sartzen ez direnak, eta kanpo zerbitzuekin egindako kontratazioak; era berean, hemen sartuko dira proiektura atxikita egonda, UPV/EHUn lan egiteko istripu aseguruaren estaldurarik ez duten kideen aseguruak eta kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

4.2. Gehienez 8.000 eurotako finantzaketa eskatu ahal izango da

4.3. Deialdi honen kargura finantzatutako proiektuak gauzatzeko gehieneko epea laguntza emateko erabakian ezarritakoa izango da eta, gehienez ere, 2022ko abenduaren 31 izango da; epe hori ezin izango da luzatu.

5. oinarria.- ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1.- Proiektuaren kalitatea: <ul style="list-style-type: none"> • Proposamenaren interes zientifikoa, teknologikoa, ekonomikoa edo soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea (15 puntu). • Metodologiaren eta teknika instrumentalen egokitasuna (15 puntu). • Laneko plan bideragarri eta posibilista (10 puntu). 	40
2.- Ikertzaileen kalitate zientifiko eta teknikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Ikertzaileen curriculumak (15 puntu). • Deialdi publikoetan eta/edo kontratu bidez finantzaturako proiektuetan baliabideak erakartzeko gaitasuna eta lortutako produktibitate zientifikoa (20 puntu). 	35
3.- Proiektuaren transferentzia eta finantzaketa: <ul style="list-style-type: none"> • Arabako Lurralde Historikorako espero den teknologia/jakintza eta itzulera transferitzeko plana (10 puntu). • Aurrekontua proiektuaren helburuetara egokitzea (15 puntu). 	25
BALIOESPEN OROKORRA	100

Horrez gain, emakumezko ikertzaileak (IN nola IN kide gisa) buru dituzten eskaeren kasuan 2 puntu gehiago erantsiko zaizkio eginiko ebaluazioaren emaitzari.

6. oinarria.- ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, honako deialdi hau Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzaren web gunean argitaratuko denetik kontatzen hasita.

7. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaera ikertzaile nagusiak egin beharko du. Honako dokumentu hauek emango dira:

- i. Eskaera deialdi honetarako aurreikusitako ereduaren arabera egingo da eta jarduera egingo duen taldeko langile guztiek sinatuko dute.
- ii. Proiektuan parte hartzen duten pertsonen CV laburtu normalizatua, pdf formatuan. CVak ez dira, inolaz ere, paperean aurkeztuko.

Dokumentu horiek [Ikerketaren arloko webgunean](#) deskargatu ahal izango dira.

Eskaerak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidaliko zaizkio.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean, lehenik eta behin, "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" aukeratu behar da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "EHU VITAL 2021". Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da:

Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Eskabidea UPV/EHUko erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten bada paperean, posta elektronikoz bidali beharko dira convocatoriasaraba.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, eskaera aurkezteko epearen barruan, proiektuan parte hartzen duten pertsonen CVak, bai eta aurkeztutako eskabidearen kopia ere. Posta mezuan "gaia" atalean agertu beharko dira: "EHU VITAL 2021" eta eskatzailearen DEITURAK ETA IZENA. Deialdian ezarritako dokumentazioa eranstea, behar adina mezua bidali ahal izango dira eta horietan guztietan "gaia" atalean adierazitako informazioa adierazi beharko da (kontuan izan UPV/EHUko mezuaren gehieneko edukiera 10 MB-takoa dela; beraz, bidalitako dokumentazioak gehiago hartzen badu, mezua ez da jasoko).

8. oinarria.- LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOAK

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo ditu deialdi honetako laguntzen kudeaketa lanak, Ikerketaren gestioa zuzendaritzaren bidez.

9. oinarria.- ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

9.1. Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du bere web atarian. Bertan eskaera bakoitzak zer falta duen zehaztuko du, interesdunek akatsa zuzen dezaten. Hamar egun baliodunen epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epe hori igarota ez bada akatsa zuzendu, ulertuko da eskaria bertan behera utzi direla.

9.2. IGBBk baloratuko ditu 5. oinarrian adierazitako balioespen irizpideak.

9.3. Ebaluazio prozesuan ikertzaile nagusiari ebaluatzaileekin biltzeko eskatu ahal izango zaio, eskaeraren inguruko azalpen eta xehetasun gehiago emateko.

10. oinarria.- EBAZPENA

10.1. IGBBk erabaki proposamena egingo du ebaluazio irizpideen arabera lortutako puntuazioa kontuan hartuta eta, esleitutako aurrekontu kreditua agortu arte, baloraziorik onena lortu duten proiektuei esleitu zaizkie laguntzak.

Erabaki proposamen hori Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, eta proiektu eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziko da.

10.2. Eskatzaileek 10 egunen epea izango dute, gehienez eta proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, onartzen dutela edo uko egiten diotela adierazteko, edo egokitzea jotako alegazioak aurkezteko.

Alegazio horiek oinarritzeko, ikertzaile nagusiak bere proiektuaren ebaluazioa eskatu ahalko du posta elektronikoz, convocatoriasaraba.dgi@ehu.eus helbidera zuzenduta.

Alegazioen dokumentua eskabideak aurkezteko 7. oinarrian ezarritako bitarteko berberen bidez aurkeztuko da.

Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta interesdunak alegatzeko bere eskubidea indarririk gabe geratu dela ulertuko da.

Ikerketaren arloko errektoreordetzaren erabakiaren bidez argitaratuko da ikerketaren webgunean laguntza hauek emateko erabakia eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balio izango du.

10.3. Aipatutako erabakiaren kontra berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 1. Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 124 eta 39/2015. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

10.4. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

11. oinarria.- LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

Deialdiaren erabakia argitaratu ostean, ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak sinatu beharko du deialdiaren erabakian proposaturiko finantzaketa baldintzak onartzen dituela dioen dokumentua, esleitutako laguntzak hornitu ahal izateko.

12. oinarria.- JARRAIPENA

12.1. Ikerketaren arloko errektoreordetzak antolatuko du subentzionatutako eskariei jarraipena egiteko prozedura.

12.2. Amaierako txostena. Jarduerak amaitu eta hurrengo hilabetean, lortutako emaitzak horretarako emango den inprimaki batean idatzitako amaierako txosten batean jasoko dira. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena.

12.3. Amaierako ebaluazioa. Azken txostena hartu ondoren, lortutako emaitzak ebaluatuko dira. Ebaluaziorako irizpide izango dira:

- a. Emaitzak plazaratzeko egindako argitalpenak, eta, hala dagokionean, lortutako aplikazioak, patenteak, prototipoak eta merkaturatzeko moduko bestelako produktuak.
- b. Zehaztu daitezkeen beste irizpide batzuk.

12.4. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, faktura originalak ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira. Faktura horiek eskuragarri egongo dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko Barne auditoretzako zerbitzuak, Eusko Jaurilaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztapenen bat egin behar dutenerako, eta hala, deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz beren zereginen baitan eskaturiko edozer informazio eman beharko zaie.

Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

12.5. Proiektua gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak bakarrik egotzi ahal izango zaizkio proiektuari; hau da, 4.1 oinarrian zehaztutako kontzeptuei dagozkienak eta epe horren barruan benetan egindakoak.

13. oinarria.- EMAITZEN ZABALKUNTZA ETA USTIAPENA

13.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

13.2. Ikertzaileak zein erakunderi lotuta dauden adierazteaz gain, esker onen eta aintzatespenen atalean, Vital Fundazioak emandako finantzaketarekiko esker ona ere adierazi beharko da, horrek ahalbidetu baitu ikerketa.

13.3. Ikerketa jarduerak aurrera eraman ahal, potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektualerako bestelako elementuen bidezko babesa jaso beharreko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek ikerketako errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, pertsonal espezializatuak honela iritziko balio. Erregistratuz gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektualaren titularra. Asmakizunean parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira.

14. oinarria.- LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

14.1. Ikertaldeari finantzaketa emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere haren xedea betetzat jo denean, edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian eman zen laguntzaren aldeko erabakia aldatzeko erabakia ekar lezake eta, horren bidez, proiektuari esleitutako aurrekontua murriztea edo, hala badagokio, kentzea.

Horretarako, erabakia hartu aurretik, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedaturiko administrazio prozedura burutuko da, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposatuta, eta haren berri emango zaio, indibidualki, ikertaldeko ikertzaile nagusiari.

14.2. Honako kasu hauetan ulertuko da finantzaketa jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzeari uko egitea, edo proiektuko

ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera lekualdatzea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bidaltzea, horrekin arriskuan jarrita proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortu ahal izatea.

- b. Ikerketa proiektu berbererako beste iturri batzuetatik diru laguntza jasotzen denean, edo beste erakunde, entitate edo zentro publiko edo pribatu batzuei ikerketa proiektu beraren aldakiak aurkezten bazaizkie behar bezala justifikatu gabe eta finantzaketa eskatzeko xedez, aldeztatik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatuzea.
- e. Proiektuetako taldeetako pertsona kopurua aldatzea (behera eginda), 15. oinarrian ezarritakoaren arabera.
- f. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUK kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.
- g. Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo edozein erosketa eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da eta erabili gabeko finantzazioa kenduko da.

15. oinarria.- IKERKETA PROIEKTUOKO TALDEAREN OSAERA ALDATZEA

15.1. Ikerketa proiektuko taldearen osaera edozer aldaketa egiteko baimena eskatu beharko zaio Ikerketaren arloko errektoreordeari eta hark kudeatuko du dagokion erabakia.

Ez da ekiptuan baxarik onartuko, ez bada ezinbesteko kausarengatik.

Aldaketa hori eskatuko balitz, Ikerketaren arloko errektoreordeak IGBBri helaraziko dio eskaria, txostena eman dezan berori onartu edo ezetsi beharri buruz eta erabaki proposamena Ikerketaren arloko errektoreordeari jakinaraz diezaion.

15.2. Ikertaldeetako kideen aldaketak, altak eta bajak Ikerketaren arloko errektoreordeak baimena ematen duen egunean hasiko dira eragina izaten, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak aurretik txostena eginda.

16. oinarria.- LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorre buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

17. oinarria.- IKERKETA JARDUERAKIN LOTURIKO IRIZPIDE ETIKOAK

17.1. Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo/eta pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko legedia bete: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 ED, biobankuei buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa; 2016/679 Arautegia, Europar Parlamentua; eta UPV/EHUko Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia
- Kasuan kasuko Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanetan etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

17.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimendu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatu.
- Animaliekin ikertzearen arloko indarreko arautegia bete (53/2013 ED).

- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenetik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

17.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhurtasun eta informazio printzipio etikoak errespetatu.
- Arlo horretako indarreko arautegia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenetik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).

17.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan behar da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

17.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean. Ikerkuntzako eskumenak dituen errektoreordearen esku geratzen dira honako deialdia hau garatu eta burutzeko behar diren ekintza eta erabaki guztiak, bai eta, hala behar balitz, epeak zabaltzeko aukera ere barne.

Leioan, 2021eko irailaren 16an.

Inmaculada Arostegui
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación